

DOMUND 2021

“Ikusitakoa eta entzundakoa konta ezazu”



DOMUND
CUENTA
lo que has
VISTO Y
OÍDO

24 DE OCTUBRE DE 2021

IKUSITAKOA ETA
ENTZUNDAKOA
KONTA EZAZU

2021EKO URRIAREN 24EAN

#DOMUND
Colabora en www.domund.es
lagundu www.domund.es orrian

 **OMP**
OBRAS MISIONALES
PONTIFICIAS

DELEGACIÓN DIOCESANA DE MISIONES MISINOETARAKO ELIZBARRUTIKO ORDEZKARITZA

Plaza Nueva, nº 4 – 2º
48005 BILBAO Tif. 94 401 36 99
E-mail misiobi@bizkeliza.org

“CUENTA LO QUE HAS VISTO Y OÍDO”
“IKUSITAKOA ETA ENTZUNDAKOA KONTA EZAZU”

Adiskideok:

Misinoetarako Ordezkaritzatik datorren urriaren 24an, domekaz, ospatuko dan DOMUND 2021 kanpainaren barri emon gura deusuegu.

Apostoluen Eginetan oinarritutako goiburuak gutako bakotxaren eta alkartearen lekukotasuna biztu gura dau: **“Kontatu ikusi eta entzun dozuna”**. Bihotzean daukaguna ezagutzera emonez, makina bat anai eta arrebaren egoeraz “arduratzeko” deia da.

On Joseba Segura gotzainak bere mezuan dinoanez: *“Kanpaina honek martxan jarri gura gaitu, gure buru eta bihotzak zabalduz. Kristoren misinoaren barruan gagoz eta misino horrek danon laguntza behar dau: “Zoaze, bada, bidekurutzeetara eta deitu ezteguetara guztiak aurkitu ahala” (Mt 22, 9). Inork ezin dau bere burua errukizko maitasuna sustatzeko deitik kanpo ikusi. Kristok gizon eta emakume eskuzabalak behar ditu gaur be, fede sendoa dabenak, Jainkoaren Maitasunari bide emoteko eta munduaren kanpoaldeetan agertzera emoteko gauza diranak”*

Egun honeetan, gure misioilarien bizitza eta lana gogora ekarri gura doguz, munduko hainbat lekutan, Jainkoaren maitasunaren barri ona iragarten eta mundu zuzen eta anaikoarragoaren eraikuntzan laguntzen dihardue-eta. Egunez egun, Barri Onaren aldeko konpromisoa barritu egiten dabe eta uste osoa jarten Jainkoaren maitasunean, arazo, erronka, aberastasun eta pobretasunei aurre egin ahal izateko.

Aurreko urteetan lez, kanpainarako lagungarriak bialtzen deusueguz, esate baterako: On Joseba Segura gotzainaren mezua, kartelak, triptikoak, e.a. Gainera, dalako lagungarri horreek www.omp.es Aita Santuaren ardurapeko Egintzak dalakoaren web orrialdean eskuratu daikezuez. Misiolari gazte bik euren lekukotasuna eskainiko dabe ikastetxe eta taldeetan.

DOMUND eguna ondo ospatu eta aprobe txatu gogoeta eta ekintzarako egun hau zuon talde eta alkarteetan misiolari bokazino barriak eragiteko.

“Jainkoak mundura, herriz herri, bildu gura gaitu gaur be, bere maitasunaren lekukotasuna emoteko, IKUSITAKOA ETA ENTZUNDAKOA KONTATZEKO”.

Eskerrik asko kanpaina garatzen lagundu eta, bide batez alkarteak gure anai eta arrebarik behartsuenen garrasia entzuzera zabaltzen dozuezanoi.

Feli Martin

Misinoetarako ordezkaria

Ikusitakoa eta entzundakoa konta ezazu

“Ardura hartzeko’ eta bihotzean doguna ezagutzera emoteko deia.” Frantzisko Aita Santua

“**Prest nozu, bialdu neu**” (Is 6, 8) iazko DOMUND eguneko goiburuagaz, Frantzisko Aita Santuak GUTAKO BAKOTXA BIALKETARAKO PREST EGOTEA eskatzen eban: “Abia gaitezen, irten gaitezen guztiei Jesu Kristoren bizitza eskaintzera” (EG 49). Horrek, “**konpartitzeko, zerbitzatzeko eta bitarteko izateko**” aukera emoten deusku, ni bildurti eta itxitik atara eta norbere buruaren dohaintzaren bidez barritutako bestearengana igaroz.

Aurton, Apostoluen Eginetatik hartutako goiburuak norberak bakarka eta alkarreagaz batera emondako lekukotasuna eragin gura dau: “**Kontatu ikusi eta entzun dozuna**”. Makina bat anai eta arrebak bizi dauan egoeraren ‘ardura hartzeko’ deia, bihotzean doguna ezagutzera emonez.

Pandemiak baldintzatu ditu urte hau eta aurrekoa. Orain, sekula baino beharrezkoagoa da “kidetasun eta alkartasuna lehenetsiko dituan alkarrea sortu eta horri denbora, ahalegina eta ondasunak zuzentzea” (FT 36). Holan osasun publikoaren aldeko konpromisoak ezinbestez dakarren distantziak ez ditu bat egiteak eta makalenen aldeko arreta ta euron sustapena.

Kanpaina honek martxan jarri gura gaitu, gure buru eta bihotzak zabalduz. Kristoren misinoaren barruan gagoz eta misino horrek danon laguntza behar dau: “Zoaze, bada, bidekurutzetara eta deitu ezteguetara guztiak aurkitu ahala” (Mt 22, 9). Inork ezin dau bere burua **errukizko maitasuna** sustatzeko deitik kanpo ikusi. Kristok gizon eta emakume eskuzabalak behar ditu gaur be, fede sendoa dabenak, Jainkoaren Maitasunari bide emoteko eta munduaren kanpoaldeetan agertzera emoteko gauza diranak.

Lekukoek, gaur egungo misiolariak, ezin dabe ikusi, entzun eta bizi izan dabena ezkutatu. Askok eta askok herriaren zoritxarreko esperientziakaz bat egiten dau: herritarrak errespetatzen ez dabean gerrak, gosea, zapalketa, desbardintasuna, ezegonkortasun politikoa, ziurtasunik eza ekonomian... Baina egora guztietan somatzen dabe Jaunaren laguntasuna eta honek indarra emoten deutse alperreko sufrimentua gainditzeko eta, aldi berean, planeta eder hau, eraso larriak jasaten dituan eta danona dan etxea, zainduz.

DOMUND egun honetan, gogoan izan daiguzan Bilboko Eleizbarrutiko misiolari guztiak. Fedez eta biziz betetako lekukotasuna emonez, Barri Ona heraraztoten deuskue, guk bizi doguzan gizarte eta ekonomia egoerakaz alderatuz guztiz desbardinetan bizi dan jendartean ikusten eta entzuten dabena iragarri eta salatuz.

Lagundu deiegun eta lankidetzan jardun daigun Eleiza osoaren misiolari eginkizunean bakarka eta alkarreagaz batera otoitz eginez, diru-laguntzak emonez, parroketako, alkarreagaz eta Eleizbarrutiko misiolari jardueretan parte hartuz. Herrialde txirotuetoako Eleiza ahizpekiko senide laguntasun honi esker, bizirik eutsiko deusagu gaur, Maria ebanjelizazioaren izarraren laguntzagaz, gure misiolari konpromisoari.

Anaitasunezko besarkada

+ Joseba Segura
Bilboko Gotzaina

“KONTATU IKUSI ETA ENTZUN DOZUNA!” “CUENTA LO QUE HAS VISTO Y OÍDO”

LITURGIA LAGUNGARRIAK

SARRERAKO OHARRA

Ondo etorriak DOMUND eguneko Eukaristiara!

Frantzisko aita santuak gogoratzen deuskunez, Jainkoa bizitzan Aita lez agertzen jakula autortzen dogunean, gure bihotza zabaldu eta bere ikutua onartzen dogu. Holan, Berak, gure itsutasunak sendatu egiten ditu eta Jeusen eskutik ikusi eta entzun doguna gure eguneroko bizitzan batera jarteko gauza egiten gaitu. Horixe da misiolariak egiten dabena.

Eurak eredutzat hartuz, **benetako misiolari-senaz bizi daigun ospakizun hau** eta Ebanjelioko Bartimeo itsuak lez, bizi, sentitu, iragarri eta kontatu daigun ikusi eta entzundakoa, Jainkoak gizadi osoari deusan maitasunaren Barri Ona.

HOMILIARAKO OHARRA

Zelan erretzen deuskun bihotza munduaren sufrimentua ikusteak! Geure esku dagoan guztia egin behar dogu inor ez daiten Jainkoaren maitasunetik urrun sentitu eta, horregaitik, Eliza dan familia handi honetako kide lez, Ha etenbarik iragarri eta agertzera emon behar dogu. Jainkoaren maitasuna iragarri eta agertzera emon eta gure anai eta arriben sufrimentuaren eragileak kontatu eta salatu.

Esker onez gogoratu gura doguz misiolariak, “euren bizitzaren lekukotasunagaz bateoko konpromisoa barritzen, barri onaren apostolu eskuzabal eta alai izaten laguntzen deuskue-eta”, eta itxaropenezko berbak eroaten: “Jaunak salbatu egin dau bere herria!” (Lehenengo irakurgaia).

“Jaunak handikiro jokatu dau gugaz, eta pozik gagoz” (Salmoa).

Gutako bakotxak Jainkoaren maitasunaren esperientzia bizi ez badu, bere seme eta alaba sentitzeak pozten ez badau, ezin da misinorik gauzatu. Jainkoa nire bizitzan azaltzen ez bada, zer eroango ete deutset besteei? Horregaitik, otoitza, Frantzisko aita santuak dinoan lez, misiolari egintza nagusia da.

Eleiza lez, ebanjelizatzeak, fruturik itxaron barik eskuzabaltasunezko lekukotasuna emoteak eta “betirako abade” dan (Bigarren irakurgaia) gure izate misiolariaren oinarri eta bizitzaren osotasun dan Kristogaz leial jokatzek emoten deusku nortasuna.

Jainkoak gu guztiok eta bakotxa behar gaitu munduari oihukatzeke: “Aurrera, altxatu zaitez, deika daukazu-eta” (Ebanjelioa). Jaunak deitzen gaitu-eta; Jauna ataraten da gure bila, sendatu eta kontsolatu egiten gaitu; Jaunak beti dau berba bat gure egoera arintzeko... Jesusek zera galdetzen

deusku gaur: "Zer gura dozu nik egitea?". Gaur, Domund eguna, Jesusek gure bizitza aldatu leike. Ez ete gagoz itsu, Jesus munduaren argia gertu izanda, bizitzan erdi-itzaletan ibiltea ontzat jota? Ondo ikusten ebalatu uste eban askok ez eban Jesusen atzetik jarraitu; Bartimeok bai. Eta Bartimeo izan gaitekez geu be. Geure egin daigun Jerikoko itsuaren otoitza: "Rabbuni (Maisu), ikusi daidala. "Kontatu ikusi eta entzun dozuna!".

JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA

- Frantzisko aita santuaren, Joseba gure gotzainaren eta gotzain guztien alde. Gidari izan daiguzala begietako benda kendu eta Jesusega bat egitean ikusiten eta entzuten doguna pozez iragarri daigun. Eskatu deiogun Jaunari
- Abadeen, diakonoen, katekisten eta alkarteetako ebanjelizatzaileen alde. Adoretu eta gogotsu jardun daien Barri Ona leku guztietan iragarteko. Eskatu deiogun Jaunari.
- Misiolarien alde. Jainkoaren Erreinuaren lekuko ausart izanda, euren bizia lurreko txirotuen alde emon daien, Barri Ona iragarriz eta gure anai eta arrebek jasaten dabezan egoera latzak salatuz. Eskatu deiogun Jaunari.
- Eukaristia honetan batu garen guztion alde. Jesukristogaz bat egitearen lekukotasuna emon daigun gure inguruan, Jaunak bialdutako ikasle sentituz. Eskatu deiogun Jaunari.

ESKAINTZA

Oria eta ardaoa, Erreinuaren lekuko eta ebanjelizatzaile lez hazteko doguzan bitartekoak, eroango doguz altarara. Eleizaren egiteko misiolarian esku-hartzea, begietatik benda kentzea da eta bihotz errukitsua Jaunaren deiari erantzuteko prest agertzea bere maitasuna iragarteko eta Erreinuaren eraikuntza oztopatzen dauana salatzeke. (Ogi eta ardaoagaz batera, bendak, kartulinazko bihotza, munduaren mapa,... eroan daitekez altarara)

OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Misinoen alde batuko dogun dirua mundu honetako behartsuenen alde dogun konpromiso eta alkartasunaren isla da. Konprometitu gaitez misiolariakaz ikusi eta entzun dabena kontatzeko, eta bat egin daigun eurakaz, euren egitekoak burutzeko ezinbesteko dabene diruaz lagunduz, izan be, une korapilatsu honeetan, areagotu egin dira gabeziak. **Eskerrik asko eskuzabaltasunez jokatzeagaitik.**

ELEIZBARRUTIAREN DIRU-EKARPENA – OMP

Urtean zehar, misinoakaz lankidetzan jarduteko hainbat bide dago. Aita Santuak, bere aldetik, adiera hau emon gura deutse Domund eguneko munduko kolekta guztiei: Misinoko lurralde guztiei eusteko izan daitezala, katolikotasunaren, hau da, unibertsaltasunaren zeinu lez.

Aita Santuaren ardurapeko Misiolari Egintzek, OMP deitzen diranek, laguntzen banaketa zuzena bermatzen dabe, munduko Eleiza guztiek gutxieneko laguntasuna jaso daien. OMP erakundeko Batzar Nagusiak, Aita Santuaren aginduz, beharrianak zeintzuk diran ikusi eta laguntzak banatzen ditu. Ekarpenen zati handiena Misinoko lurraldeetako ohiko beharrianetara zuzentzen da. Aparteko egitasmoak be babesten dira, ebanjelizazinoa eta giza sustapena aurrera erodateko.

Domund eguneko laguntzei esker, Eleizak munduko biztanleriaren erdiari, hain zuzen be Misinoko lurraldeetan bizi danari, eskaintzen deutso bere mezua.

Misinoetarako Eleizbarrutiko Ordezkaritzatik **ESKERRAK** emon gura deusueguz urtean zehar Aita Santuak Sustatutako Egintzetan erakusten dozuen eskuzabaltasunagaitik eta egiten dozuen guztiagaitik. Taldeek, parrokiek, kongregazioek eta partikularrek egiten douzuezan dohaintza eskuzabalen barri dogu eta laguntza horrek herrialde desbardinetan jarduten daben misiolarien beharrian materialei aurre egiteko balio dauala esan gura deusuegu.

Gure eleizbarrutiko 208 misiolari inguruk jarduten dau 47 herrialde inguruan, euren bizia eta egitekoa beste alkarte batzuetan alkarbanatuz, Barri Ona iragarritz, Jaungoikoaren Erreinua eraikiz. Misinoen jardunaldia dala-eta, eskerrak emon gura deutseguz euren misiolari zerbitzuagaitik eta eskerrak emon gura deusueguz diruz laguntzen deuskuzuenoi, hori ezinbestekoa da-eta, misiolari egitekoak aurrera egin daian.

Mezu elektronikoz bialtzen dogu parrokia guztietara 2020an egin ziran kolekten bitartzen izan zan diru-sarrera.

OHARRA: dohaintzak ze parrokia, alkarte erlijioso, ikastetxerenak... diran ondo jakiteko, arren eskatzen deusuegu GAIAN honako hau ipinteko: **lehenengo herria** eta **ondoren parrokiaren, ikastetxearen... izena.**

KUTXABANK-BBK _____ **ES52 2095 0000 76 200002710 2**

LABORAL KUTXA _____ **ES22 3035 0019 90 019000941 8**

BBVA _____ **ES89 0182 1300 11 001491556 5**

Zuon bankuaren app-an **Bizum bidez 00500** dalakoan egin daikezue ekarpena.

Misiolari guztien eta OMP erakundearen izenean, **ESKERRIK ASKO!**